



0. SARRERA

Gaurko txosten honek bi zati nagusi ditu: batetik, helduen euskalduntze-alfabetatzearen deskribapen diakronikoa, bestetik, 1995 ezkeroztik sustatu den norabide aldaketaren deskribapena eta honek dakarzkina erronka eta proposamenak.





1. HISTORI MODUKOA

Helduen alfabetatze-euskalduntzearen historia bakarra egitea bere laburrean ere lan eskerga izan daitekeenez, bildu eta argitara emana dagoenaren araberrako histori moduko bat egiteak dirudi egokiena, eztabaida antzutara eraman ez gaitzan. Argitu beharrekoa da EAEko datuetan dagoela oinarritua, eta hauen arabera zehaztu direla epealdi ezberdinak. Nafarroa eta Iparraldeko datuez osatuko da epe laburrean.

A) HASTAPENAK

Esan daiteke 1966an izan zuela hasiera lan-eremu honek, helduen alfabetatzea abian jarri zenean, Rikardo Arregiren eskutik bereziki.

Laister antolatu ziren euskalduntzeko saioak eta hauek joan ziren poliki-poliki nagusitzen.

Gau-eskola bezala eta Euskaltzaindiaren Jagon sailaren baitan kokatua aritu ziren lehen urteotan, guztien koordinakunde bat sortuta (AEK). Gaueskolatik euskaltegi izateko, hau da, egun osoan lan honetan emandako irakasleak eta egoitza berezituak izateko lehen erabakiak 1976 urtearen inguruan mamitu ziren Bilbo eta Donostian.



B) INSTITUZIONALIZATZEA

Eusko Kontseilu Nagusiaren garaian (1979-80), helduen alfabetatze eta euskalduntzeari babes eta egitura publikoa emateko zenbait saiok porrot egin zuenez, 1981ean bi erabaki garrantzitsu hartu ziren:

- Euskaltzaindiak bere babesetik kanpo utzi zuen AEK, eta honek, gero, egitura autonomoa hartuko zuen.
- Eusko Jaurlaritzak helduen alfabetatze eta berreuskalduntzerako Erakunde publikoa sortzen du, gero (1983an) Legebiltzarrak Lege bidez Erakunde Autonomiadun bilakatuko zuena.

Harrez geroztik, euskaltegiak asko garatu dira, bai HABEren ekimen zuzenez sortutako publikoak eta bai irakasle-taldeek eurek sortutakoak.

C) HEDAPENA

Helduen alfabetatze-euskalduntzearen zabalkunde-garaia da 1981etik 1986-7 ikastertera bitartekoa.





1) Alde batetik, euskaltegiei dagokienez:

urtea	publiko	homologatu	libre
1981-82	7	3	183
1986-87	48	26	157

2) Ikasleei dagokienez berriz,

urtea	matrikulak	orduak (milaka)	pertsona ezberdinak
1981-82	22.153	4.161	?
1986-87	77.559	13.645	46.487

3) Irakasleen profesionalizazioaren aldetik:

urtea	irakasleak	egun osoz
1981-82	?	150 ±
1986-87	2.093	1.100 ±





4) Diru-baliabideei dagokienez:

	1982	1987
HABEren dirulaguntzak	77.400.000 peseta (+)	1.145.718.000

D) GELDOTZE GARAIA (87/91)

Inguruko egoerak horretara eramanda edo, helduen alfabetatze-euskalduntzeak bere gailurra 1986-87an jo zuela dirudi, hurrengo urteetan malda-behera sumatzen baita arlo osoa:

- Apenas udal-euskaltegi berririk sortzen den.
- Giza-ekimenezko euskaltegiak sortzen badira ere, nagusiki IKA eta ABEGI sortzearen ondorio izan da.
- Ikaslegoak nabarmen behera egiten du, bi ikasturtetan % 17,7an jeitsiz.
- Irakasleen kopurua ere, proportzio beretsuan jeisten da.





Datuok are kezkarriagoak dira, tarte horretan EAEko Administrazio Publikoetako langileen euskalduntzeko plangintza martxan jarri baita, eta horien eskolaratzea helduen alfabetatze-euskalduntzerako sektoreak bere gain hartu baitu. Bestalde, kontuan hartu beharrekoa da HABEk euskaltegiei ematen ziren dirulaguntzen kopurua 2.142 milioetara heldu zela.

E) AZKEN URTEAK (1992-95)

Euskaltegien garapenak, eta irakasleren profesionalizazioak, lan-arlo honen etorkizuna ziurtatu nahia ekarri zuen, euren diru-iturri nagusia zen administrazioaren diru-laguntzari zegokionean, batez ere.

Horrela, bada, irakasleren ezaugarriei begiratzen badiegu, berehala ulertuko dugu etorkizunari buruzko kezka hori sortu izana:

urtea	egun osoko dedikazioa	17-21 urte	22-26 urte	27-31 urte	32 urte edo gehiago	goi-mailako ikasketak	erdi-mailakoak
1986-87	% 54	% 15	% 50	% 20	% 15	% 22	% 32
1990-91	% 61	% 2	% 45	% 32	% 31	% 33	% 45





Euskal filologia eta magisteritza ikasitako jende-andana handia dator sektore honetara lan-bila, lan normalizatu baten bila, unibertsitatek ateratzen diren titulatuentzako Hezkuntza Sailak ez baitu ia lanpostu berririk sortzen.

Bestalde, lehendik ari direnak ere, famili-konpromisoak izateko adinean daude, hein handi batean.

Geroxeago, Udalek 1991n HABErekin etorkizunerako sinatutako hitzarmenarekin hasitako bideari euskaltegi homologatuek heltzen diote, horretarako BERTAN federazioa sortuz.

Eta, azkenik, HABEren sorreratik bertatik harreman gatazkatuak izan zituzten HABEren eta AEKren arteko etorkizuna ere eztabaidatu zen, 1994an lehen hitzarmena sinatu.

Garai honetako egoera isladatzeko, datu xume batzuk ikustea komeni da, guztiak 1994-95 ikasturteari dagozkionak:

A) Euskaltegi kopurua:

- publikoak:	51
- homologatuak:	46
- libreak:	65





B) Ikasleak:

- matrikulak:	55.172
- pertsonak:	43.557
- orduak:	14.732.000

C) Ikasle berriak: %37

D) Baja-kopurua: %17

E) Ikasleen tipologia (datu guztiak ehunekotan emanda)

- Maila: hasiera urratsaren arabera (%ekotan):

1-3	4-6	7-9	10-12	alfa
37	30	18	10	5

- adinaren arabera (%ekotan):

16-20	21-25	26-30	31-35	36
20	24	23	15	18

- ikasketen arabera (%ekotan):

goi-maila	erdi-maila	UBI-LH II	beste
23	15	36	26



2. ARO BERRI BATEN ATARIAN, ETA ERRONKA NAGUSIAK

A) HIZKUNTZA POLITIKAREN LEHENTASUNAK

Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak, behin eta berriz adierazia zuen Eusko Legebiltzarrak euskara-gaietarako orohar onartutako diruaren erabilera ez zettorrela bat hizkuntza politikaren normalkuntzarako irizpideekin. Hau da, Eusko Jaurlaritzak (Kultura Saila, HABE, IVAP, HUIS) euskararen normalkuntzarako duen diruaren %70-80a pertsona helduen alfabetatze-euskalduntzean erabiltzen dira; horrek, ordea, garrantzitsua izanik ere, lehentasunen arteko bati baino ez baitio erantzuten.

Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia zen M. Carmen Garmendia andreak Eusko Legebiltzarrean 1994ko apirilaren 22ko agerraldian argituak utzi zituen hizkuntza-politikaren lehentasunak:

- Euskararen ondorengotaratzeari bermatzea, batez ere familia bidezko hizkuntza igarobideari eutsiz.
- Euskararen ohiko erabilera eremuak sendotzea eta segurtatzea, hizkuntzaren egunerokotasuna delako euskararen bizi-iraupenerako bermerik segurua. Ildo honetatik, aisialdia, kirol eskaintza eta, orohar, irakaskuntza ez-arautua zaindu beharreko guneak gogoratuz.
- Euskararentzat erabilera eremu berriak irabaztea, hau da, euskararen presentzia finkatu eta hedatzea komunikabidetan, herri administrazioetan, unibertsitatean eta hainbat enpresa zein zerbitzutan.





- Euskararentzat hiztun gaituak irabaztea, dela hezkuntza sistemaren euskalduntzearen ondorioz, dela helduen euskalduntze eta alfabetatzearen bidez. Bi bide hauek diren baino emankorragoak izan daitezten, zenbait proposamen indarrean jartzeko beharra adierazi zuen 1993ko agerraldian.

B) HELDUEN ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE ETA HIZKUNTZA POLITIKAREN LEHENTASUNAK

Kultura Sailburuak "Helduen euskalduntze eta alfabetatzerako ildo nagusiak eta hobekuntza-proposamena" gai hartuta, 1995eko abenduaren 1ean Eusko Legebiltzarrean eginiko agerraldian esandakoak ekarri beharko genituzke hona helduen alfabetatze-euskalduntzearen aro berria eraikitzeko hartu diren erabakiak azaldu aurretik.

1) Euskalduntzea eta alfabetatzea hizkuntza politikarako oinarrizko tresnak dira eta horrexegatik azaldu berri dizkizuedan hizkuntza politikaren lehentasunei aurre egin behar diete ezer baino lehen. Honek esan nahi du hizkuntza ezagutzaren inguruko ekintzabideak eta erabileraren ingurukoak jarduera plan bakar eta koherente batean uztartu behar ditugula, euskararen bizitasun soziolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, gizataldeetan eta gizarte eremuetan arreta berezia jarritz.

- Aintzakotzat hartzekoa da, gainera, estrainekoz legegintzaldi honetan dagoela hizkuntza politikaren ardura daukan erakunde publikoa Kultura Sailean txertatuta, eta horrek sinergiak bideratzeko aukera handiak ematen dizkigula hizkuntza politikaren lehentasunei era egokiagoan erantzuteko.





2) Udal Euskaltegiek eta euskaltegi pribatuek osatzen dute helduen euskalduntze eta alfabetatzearen alorra. Bi sareak dira beharrezkoak euskararen ezagutza eta erabilera bultzatzeko, eta biak osagarritasunaren printzipioaren arabera ordenatuko dira euskaltegien maparen bitartez.

3) Gaur egun, helduen euskalduntze eta alfabetatzearen erronkarik nagusiena da dauden giza zein ekonomi baliabideei ahalik eta aterramendurik handiena ateratzea, ez, ordea, emaitza hobeak bermatzen ez dituen sektorearen inertziatzko hazkundeari ekitea. Zentzu honetan, esan beharra dago azken urteotako datuek erakusten digutela klase-orduen igoerak ez dakarrela berarekin batera euskal hizkun gaituen proportziozko igoerarik. Beraz, hurrengo urteotako erronka euskalduntzearen eta alfabetatzearen emaitzak hobetzea da, dauzkagun baliabideekin euskal hiztun gehiago sortzea alegia.

4) Emaitzak hobetzeko, ahalik eta laisterren ekingo zaio sektorearen homologazio prozesua burutzeari. Homologazioa da, besteak beste, irakasleek euskara irakasteko behar duten agiri edo habilitazioa eskuratzea eta irakasleen lan baldintzak erregularizatzea.

5) Era berean, euskaltegiei dirulaguntzak emateko HABEk jarraitzen dituen oinarrizko irizpideak bateratze bidean jarriko dira."



C) IHELDUEN ALFABETATZE-EUSKALDUNTZEAREN NORMALZAZIO-PROZESUA

Irizpideotan oinarrituta, honako urratsok eman ditu edo ematen ari da helduen alfabetatze-euskalduntzea, HABEren gidaritzapean:

1) Irakasleen homologazioa: aurreko atal batean gaur egungo irakasleen ikasketa-maila azaltzean, agirian gelditu da badagoela gutxieneko ikasketarik ez duen irakasle-multzo bat. Egoera hori behinbetiko konpontzeko asmoz, egina du Kultura Sailak horrelakoen habilitazio-prozesua irikitzen duen deialdia. Deialdi honen emaitzak berehalako batean jakingo dira eta E.H.U.k martxan dituen bi graduondoko ikastaroen bidez, bost urteko epean burutua egongo da irakasle guztien homologazio akademikoa.

Irakasleen lan baldintzen homologazioari dagokionez, alde handiak daude euskaltegi edo euskaltegi-talde batetik bestera alor honetan. Era guztietako egoerak aurki daitezke erabat egoera normalizatua duten udal-euskaltegietatik irakaslegoa nahikoa baldintza kaxkarretan ari diren euskaltegietarainoko tartean.

Adibide gisa, HABEk 1995-96 ikasturtean jaso dituen datuen arabera, eskola-orduko irakasle-kostua 5.870 pezetatik 1.625 pezetatara doa (datu honi hainbat ñabardura egin lekiok).

Bestalde, euskaltegi sare guztietan dabilzan irakasleen %30 inguruk ez du lan kontraturik ere izan 1995ean.





2) Irakaslegoaren prestakuntza: gutxieneko ikasketak izanda ere, gabezia nabariak atzematen dira bigarren hizkuntzen irakaskuntza prozesuan. Horiek gainditu asmoz orain arte egin diren saioak, prestakuntza plangintzak, berziklatzeko ikastaroak ebaluatu eta aurrerantzean burutu beharrekoak planifikatu dituen batzordea eratua da iada, arlo honetako partide guztiekin, eta lanean dihardu.

3) Baliabideak zuzen antolatzeko asmoz eta bikoizketarik gerta ez dadin, legealdi honetan euskaltegien mapa burutzeko hitza emana du HABEK, eta horrela dago jasoa sinatutako hitzarmen-markoetan. Mapa hori euskaltegi-sareen ahalik eta adostasunik handienarekin burutuko da.

Mapa horretan, euskaltegiekin sinatu den hitzarmen markoak dioen bezala, "alfabetatze-euskalduntzearen ikasle-ordu kopuru osoa jasoko da, bi irizpide hauek kontuan izanik:

- Diruz lagunduko den ikasle-ordu kopuru osoa, hizkuntza politikarako lehentasun zein behar berezien arabera, beti ere, lehentasun osoa emanez erabilera-planen ondorioz etorritako ikasleei.
- Euskaltegi publikoen eta gizarte-ekimenezko euskaltegien neurria, osagarritasun printzipioan oinarrituko da."

Esan beharra dago, erabakiko den maparen urratsak urtez urte hitzarmena izango duten euskaltegi bakoitzaren neurriraketaren bidez ematen ari direla.



4) Euskaltegiak eta erabilera planak

Hizkuntza politikaren lehentasun-eremuetako ikasleak alfabetatzen eta euskalduntzen ahalegin berezia egin beharko dute euskaltegiek.

Hizkuntza politikarako Sailordetzak ezarritako lehentasun esparruen inguruan eraturako erabilera-planetan zeregin berezia izango dute euskaltegiek, eremu jakin horietan euskara erabiltzea ahalbidetzeko bertako gizataldeak alfabetatuz edo euskaldunduz: enpresak, merkataritza, aisialdia, etab.

5) Euskaltegien emaitzak:

Helduen alfabetatze-euskalduntzeak urteotan egin duen lan eskergaren emaitzak aztertu beharrean gaude. Aldez aurretik esan behar da oraindik adosteke dagoela emaitzak neurtzeko tresna. Beraz, beharrezkoa da adostea zeren arabera neurtuko ditugun euskaltegien emaitzak. Helburua aipatutakoa izanik euskaltegi-taldeekin batera osatutako batzordeak jarri dira martxan. HABEk emaitzak neurtzeko proposatu dituen adierazleak lau multzotan banatu dira: emaitza akademikoak, irakaslegoaren egoera, ikaslearen ezaugarriak eta egoera ekonomikoa. Adibide gisa, aipa ditzagun emaitza akademikoekin zerikusia daukatenak: ikasleen hasierako-maila, euskaltegien lortzen duten maila, baja-kopurua, ikasturte batetik bestera jarraitzen dutenen kopurua, ikastaroaren trinkotasuna.





Euskaltegi-talde bakoitzak finkatu beharko du zein indikadore onartzen dituen, eta bakoitzaren lehentasun -maila, euren emaitzen hobekuntzaren neurpide izango direnak. Azken batean, ahalik eta eperik laburrenean ahalik eta hiztun gaitu gehien lortzeko euskaltegiaren jardueran eragin beharreko zuzenketak zeintzuk diren finkatu beharko da.

6) Dirulaguntzak orekatzea

Garbi ikusten da HABEren dirulaguntzak euskaltegi edo euskaltegi-sare bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuari egokitu beharra eta, batez ere, sare publikoari eta pribatuari ematen zaizkion dirulaguntzen arteko oreka lortzera jo beharra.

Udal-euskaltegiek 1995ean, ikasle-orduen % 29 emanda, HABEren dirulaguntzen % 44,08 eskuratu duten bitartean, euskaltegi pribatuek orduen % 71 emanda, diruaren % 55,92 eskuratu zuten.

1996ko dirulaguntzetan, iadanik, oreka lortzeko bidean lehen urratsak eman ondoren, udal-euskaltegiek HABEren dirulaguntzen % 41,29a jaso dute eta pribatuek % 58,71.



7) Kurrikuluaren berrikuntza

Bezeroen ezaugarri pertsonalak eta hizkuntza-beharrak kontuan hartuz, euskararen ikasprozesua ahalik eta gehien horietara egokitzea ahalbidetuko duen kurrikulu berria sortu eta esperimentatzen ari da HABE, gero euskaltegi guztien lana hobetzeko tresna baliagarria izango baita. Honen hobekuntza eta hedapenak heziketaren eskutik etorri beharko du.

8) Alfabetatzea suspertu beharra.

Alfabetatzea suspertzeko bideak egitea. Kontuan izanda azken urteotan alfabetatzen aritu diren ikasleak guztien %5 baino ez direla izan, alfabetatzera hurbiltzen diren euskaldun zaharren tipologia eta hizkuntz trebakuntzarako beharren azterketa martxan dago une honetan. Alfabetatze-eskoletan diharduten irakasleekin elkarlanean, egiten den lanaren hustuketa egin ondoren, etorkizuneko alfabetatzeko eskaintza diseinatu beharko da (ikasturte honen bukaerarako): euskalkien tratamendua, xede-berezietako programak, alfabetatze-programak, etab.

Bestalde, euskaldun zaharrek euskararen ondorengotaratzean duten garrantziaz jabeturik, euskaldun zaharren alfabetatzeko ezohiko modulazio, metodologia eta materiala prestatzen ari da HABE, froga moduan, euskaltegiek erabil dezaten.



9) Euskaltegiaren autonomia: euskaltegi bakoitzak bere irakaskuntza-plana, behar du baita bere finantza-autonomiara heltzeko urratsak eman ere.

Hori dela eta, ezinbestean handitu beharra dago, asko handitu ere, euskaltegiaren autofinantza-maila, hau da, euskaltegi bakoitzak berak sortzen dituen diru-baliabideak, administrazio publikoetatik jasotzen duenaz aparte. HABEk gaur egun euskaltegien jardueraren kostuaren erditik gora diruz laguntzen du.

Bestalde, aurtengo urtarrila-ekaineko diru-zuriketan jasotako datuen arabera, hiriburuetako euskaltegi pribatu homologatuen autofinantzaketa % 40koa izan da. Euskaltegi publikoetan ikasle-matrikulen bidezko sarrera % 19ra jaisten da.

Azken batean, helburu nagusia, lehen esan bezala, ahalik eta eperik laburrenean eta hitzun gaitu gehien lortzea izanik egungo emaitzak hobetzeak du lehentasun osoa HABEren iritiz. Horrekin batera, herri-aginteen aurrekontuen gorabeherak gorabehera, euskaltegien sarrera propioak ziurtatzeak bermatuko du euskaltegien etorkizuna.

